



ARAUDIA ETA OHARRAK

1. Amasa - Villabonako BTT martxa ez da kompetizio proba bat, horregatik ez da klasifikaziorik izango eta ez da denborarik hartuko. Villabonako IRRINTZI txirrindulari klubak antolatzen du.
2. Martxaren irteera 2023ko irailaren 23an izango da Villabonako Errebote plazatik, goizeko 9:00tan. Probaren itxiera ordua 14:00tan izango da irteerako leku berdinean.
3. Antolakuntzak bere egingo du izen ematearen erreserba eta behin izena emanda ez da deboluziorik egingo. Gehienez 300 parte-hartzaile onartzen dira.
4. Parte hartzaileak NAN edo federazio txartelarekin aurkeztu beharko du, segurtasun araudiengatik, eta antolakuntzaren oharrei kasu egin beharko die.
5. Bide- gurutzeetan eta zona arriskutsuetan antolakuntzakoak egongo dira. Pertsona hauen ardura parte hartzaileen orientazioa eta segurtasuna izango da. Beraz, beraien abisuei kasu egin.
6. Derrigorrezkoa da homologatutako kaskoa eramatea ibilbidean zehar.
7. Antolakuntza ez da kargu nahiz erantzule egiten istripuak egonezkero, hildako edo lesio baten aurrean. Ezta ere, istripu honek izan ditzakeen gastu edo parte hartzaileen arteko zor nahiz hartu-emanetan.

8 .Parte hartzaile bakoitzak bere erantzunkizunpean parte hartzen du eta sasoi fisiko onean dagoela nahiz probari aurre egiteko jakintza eta abilitate teknikoa duela onartzen du.

9. Antolakuntzak eskubidea du martxan aldaketak egiteko, egoerak ala eskatzen badu.

10. Izen ematearen prezioa:

	Irailak 22 arte
FEDERATUAK	20 €
EZ FEDERATUAK	25 €

11. Izen ematea www.kirolprobak.com web orrian egin ahal izango da, 2023ko Irailak 22, eguerdiko 12:00 arte.

12. Ezarritako parte hartzaileen gehiengoa gainditzen bada EZ DA IZEN EMATERIK ONARTUKO.

13. Dorsalak egunean bertan banatuko dira goizeko 7:30etatik 8:30ak bitartean, IRRINTZI txirrindulari elkartean.

14. Eguraldi txarrak, martxa ez egitea derrigortzen badu, antolakuntzak ez du inongo ardurarik hartuko eta ez da izen ematearen dirua itzuliko.

15. Ingurumeneari kalterik ez sortzeko, parte hartzaileak anoa guneetan dauden zabor poltsetan bota beharko dituzte euren ontzi nahiz janari hondakinak.

16. Trafikoa kontrolatuta egongo da baina aldi berean irekita. Beraz, parte hartzaileak trafikoko arauak errespetatu eta obeditu beharko dituzte. Erabili burua denontzako lekua dago eta !!!!

17. Bi Ibilbide egongo dira. Ibilbide luzeak 34 km eta 1400 m-ko desnibel positiboa izango du; Ibilbide motzak aldiz, 28 km eta

1000 m-ko desnibel positiboa. Litekeena da azken momentuko aldaketaren bat egotea.

18. Bi anoa gunee egongo dira ibilbidean zehar eta hirugarrena helmugan:

- 1. anoa gunea: *ELDUKO BORDA* (likidua eta solidoa)
- 2. anoa gunea: *LOATZO* (likidua)
- 3. anoa gunea: *HELMUGAN*.

19. Helmugan parte hartzaile bakoitzak dorsala utzi beharko du eta honekin batera zozketan zerbait suertatu zaion edo ez esango zaio.

20. Dutzak ez dira egongo.

21. Garrantzitsua da ibilbide guztian jarritako seinaleei kasu egitea eta seinale hauei jarraitzea. Antolakuntza ez da kargu egiten ibilbidez kanpo dabiltzan parte hartzaileez.

22. Bizikleta elektrikoa erabiltzea onartzen da.

23. Parte hartzeko gutxienez 16 urte eduki behar dira eta 18 urte beteta ez baditu, "*Adingabeak*" dokumentua aurkeztu behar da gurasoen sinadurarekin.

24. Martxan izen emateak aipatutako araudia onartzea derrigortzen du, puntu guztiak kontuan hartuz.